



Usurbilgo Udala

Data: 2022/11/24

2022KO AZAROAREN 24EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapirain
Ainhoa Arrozpide Landa
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Ez dira bertaratu: Luken Arkarazo Silva eta Andoni Atxega San Sebastian.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2022ko azaroaren 24ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

1.- 2022KO IRAILAREN 29KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.

Batzarkideek 2022ko irailaren 29ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2022KO URRIAREN 24TIK AZAROAREN 18RA (2022/1052-2022/1125).

Alkatetzak 2022ko urriaren 24tik azaroaren 18ra bitartean (2022/1052-2022/1125) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/11/24

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- SANTUENEA AUZOAN ABENDUAREN 17AN EGINGO DEN HERRI GALDEKETARAKO MAHAIKIDEAK IZENDATZEA.

Alkateak adierazi du urriaren 27ko Udalbatzarrean Santuenea auzoan egingo den herri galdeketa arautzeko prozedura onartu zela eta, orain, prozedura horren baitan galdeketa egunean mahaikide izango direnak izendatu behar direla esan du.

Hasteko, bigarren mahaikidea izateko izena eman zuten bi pertsonen artean, titularra eta ordezkoa izateko zozketa egin da eta emaitza hau izan da:

2. mahaikide titularra: José Luis Guijarro Galán.

2. mahaikide ordezkoa: María Martínez López.

Behin zozketa eginda eta alkatearen proposamena kontuan hartuta honakoa erabaki da:

“**LEHENA:** Santuenea auzoan abenduaren 17an egingo den herri galdeketerako mahaikide hauek izendatzea:

	TITULARRA	ORDEZKOA
MAHAIBURUA	Garazi Etxeberria San Miguel	Olatz de Miguel Arnaiz
1. MAHAIBURUA	Idoia Agirre Larañaga	Ana Urdangarin Salsamendi
2. MAHAIBURUA	José Luis Guijarro Galán	María Martínez López

BIGARRENA: Erabaki hau izendatutako mahaikide titular eta ordezkoei jakinaraztea.”

4.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENAREN TESTU BATEGINEKO A-78 (TE) ZAPATEGI EREMUAREN ALDAKETA PUNTUALARI (03. ALDAKETA) BEHIN BEHINGO ONESPENA EMATEA.

Alkateak azalpenak eman ditu eta adierazi du arauen aldaketa puntual honetan urrats bat gehiago ematea dela.

Batzarkideek hirigintza batzordeko irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2018-0496

AURREKARIAK



Usurbilgo Udala

Data: 2022/11/24

Usurbilgo udalerrian hiri antolamenduko plangintza orokorra jasotzen duen dokumentua osatzen du Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginak. Berau 2013ko otsailean idatzia eta urte bereko maiatzaren 28ko osoko bilkuran onartua izan zen; 2013ko uztailaren 22ko Foru Agindu bidez argitaratzea adostu zelarik (GAO 172. zbkia. 2013-ko irailaren 10ekoa).

Bertan zehazten dira, besteak beste, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuaren hirigintza ezaugarriak.

Plenoak, 2018ko irailaren 25ean, aho batez, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko hirigintza ezaugarrien Aldaketa Puntuala sustatzeko Michelin España y Portugal, S.A., Gureak Lanean S.A., Elkarlanean Fundazioa eta Usurbilgo Udalaren artean izenpetu beharreko Hirigintza Hitzarmena behin betiko izaeraz onartzea erabaki zuen. Higintza Hitzarmena, 2018ko urriaren 17an izenpetu zen.

Formalizatutako hitzarmena betez, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko hirigintza ezaugarrien Aldaketa Puntuala bultzatu zen.

Dokumentu hori 2019ko martxoaren 28ko osoko bilkuraren erabaki bidez onartu zen hasieran, eta jendaurrean jarri zen hilabetez. GAO, 61. zk., martxoaren 29koa.

Beharrezko txosten sektorialak eta Ingurumen Txosten Estrategikoa eskatu zitzaizkion Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta 2019ko abuztuaren 7an eman zuen, eragindako administrazio eta erakundeei kontsulta egin ondoren.

Alegazioen berri eman ondoren eta hirigintzako dokumentuan txosten sektorialetan ezarritako zehaztapenak betez, 2019ko urriaren 31ko osoko bilkuraren erabaki bidez, dokumentua behin-behinean onartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igorri zitzaion.

Gipuzkoako Hirigintza Plangintzako Atalaren 1/2020 bilkuran, otsailaren 19an, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak Arau Subsidiarioen 3. aldaketaren espedientearen aldeko txostena eman zuen.

Usurbilgo Hiri Antolamenduko A-78 (TE) ZAPATEGI eremuko Arau Subsidiarioen 03. Aldaketa behin betiko onartu baino lehen, Elkarlanean Fundazioak proiektuari uko egin behar ziola jakinarazi zuen, COVID-19aren egungo pandemiak sortutako egoera berriek egiturazko eragina izan baitzuten argitalpen- eta kultura-merkatuaren sektorean.

Hori dela eta, A-78 (TE) ZAPATEGI Eremuaren hirigintza antolamendua birplanteatu behar izan zen, eraikinik gabeko eremuan beste garapen bat proposatuz.

Ondorioz, Elkarlanean Fundazioa irteteak, beste aukera bat sortu du antolamendu berri bat garatzeko, zeinak 2018ko urriko 17an sinatutako hitzarmenean eta 2019ko urriaren 31n behin-behinean onetsitako hirigintza dokumentuan jasotako irizpide orokorrak



Usurbilgo Udala

Data: 2022/11/24

mantenduko dituen, eta egoera ekonomiko berrira egokituz, eremuko eraikigarritasuna eta haren urbanizazio kargak doituko dituen, haiek murriztuz eta ondorioz, plangintzaren egiturazko nahiz xehetasunezko zehaztapenak aldatuz.

Planteamendu berri hori hirigintzako hitzarmen berri baten xede izan zen (GAO 198. zbkia. 2021-ko urriaren 15ekoa). Plenoak, 2021eko abenduaren 3an, aho batez, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko hirigintza ezaugarrien Aldaketa Puntuala sustatzeko Michelin España y Portugal, S.A., Gureak Lanean S.A., Balfer Norte S.L. eta Usurbilgo Udalaren artean izenpetu beharreko Hirigintza Hitzarmena behin betiko izaeraz onartzea erabaki zuen. Segidan parte hartzaile guztiek hitzarmena izenpetu zuten.

Ondorioz, juridikoki hirigintzako zehaztapen horiek Plangintza Orokorrean islatu behar dira, eta hasierako onarpena eman behar zaie berriro, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90. artikulua aplikatuz.

INGURUMEN-TXOSTEN ESTRATEGIKOA

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen eta planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren arabera, ingurumen ebaluazio estrategikoaren izapidea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari dagokio. Gauzak horrela, beharrezko dokumentazioa aurkeztearekin batera, Ingurumeneko Zuzendari Nagusiari dagokion txostena emateko eskatu zitzaion.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendari Nagusiak emandako ingurumen txosten estrategikoa 2022ko martxoaren 8an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 45. zenbakian. Ingurumen txosten estrategikoako honela dio hitzez hitz:

Ingurumen Txosten Estrategikoa, Usurbilgo Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren hirugarren aldaketa puntualarena, A-78 (TE) «Zapategi» Eremuari dagokionez.

1. Aurrekariak.

2021eko abenduaren 2an jasotako idazkiaren bidez, Usurbilgo Udalak eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari egin dezala ingurumen txosten estrategikoa, Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren hirugarren aldaketa puntualarena, A-78 Zapategi eremuari dagokionez. Udalak eskaerarekin batera igorri ditu, alde batetik, hasierako onespenerako Hirigintza-dokumentua, eta bestetik, haren ingurumen dokumentu estrategikoa, biak 2021eko azarokoak.

Aplikaturik zer dioen, 6.2.a) artikuluan, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, ingurumen ebaluazio



Usurbilgo Udala

Data: 2022/11/24

estrategiko sinplifikatuaren xede izan behar du Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren hirugarren aldaketa puntualak, A-78 Zapategi eremuari dagokionez, zeren eta txikiagoztat jo baita, aipatutako legeak 6.1. artikuluan xedatutako aldaketak baino. Prozedura honetan zehaztuko da, aldez aurretik kontsulta eginda aldaketak eragiten dien administrazio, pertsona eta erakundeei, ea eragin nabarmenak sor ditzakeen ingurumenaren gainean, eta horregatik, ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta behar duen, edo ez dituen sortzen, ingurumen txosten estrategiko honek ezartzen dituen terminoetan.

2. Helburuak eta proposatutako antolamendua, Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren hirugarren aldaketa puntualean, A-78 Zapategi eremuari dagokionez.

Elkar Lanean Fundazioak eta Gureak Lanean SAk beren jarduerak garatu nahi zituzten, Usurbilgo Arau Subsidiarioetako 78 Zapategi eremuko eraikuntzarik gabeko lurretan. Hain zuzen, ezarpen hori ahalbidetzeko izapidetu zen Usurbilgo udalerriko Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren Aldaketa, A78 (TE) Zapategi izeneko Hirigintza-eremuari zegokionez. Aldaketa horrek hasierako eta behin-behineko onespina jaso zuen, baina, Foru Aldundira behin betiko onarrezatzen bidali aurretik, Elkar Lanean Fundazioak jakinarazi zuen uko egiten ziola proiektuari, COVIDaren pandemiak eragindako egoera berriagatik. Horren ondorioz, birplanteatu behar izan da A78 (TE) eremuaren antolamendua eraikuntzarik gabeko eremuan, eta hasierako onespina berri bat egin behar izan da, baita ingurumen dokumentu estrategiko berri bat ere.

114.757,86 m²-ko eremu horrek, hiri-lurzoru industrial gisa sailkatuak, bi eremu berri izango ditu:

- 78 (TE) Michelin eremua, Michelin pneumatiko fabrikaren egungo instalazioek okupatua, 70.096,39 m²-ko azalera duena. Hiri-lurzoru finkatu gisa sailkatuko da, industria-erabilerrakoa.
- 110 (TE) Zapategi eremua, eraikuntzatik askatutako lurzoruei dagokiena, non planteatzen den haien Hirigintza-eraldaketa, han instalatzeko Grupo Balfer Norte SL eta Gureak Lanean SA enpresen jarduerak. Azalera 44.661,47 m²-koa du, eta horiei gehitu behar zaizkie Oria ibaian zehar erositako 5.502,87 m²-ko lursailak, gehienak erriberako babeseko berdeguneetarako erabiliko direnak. Hiri-lurzoru finkatugabe gisa sailkatuko da, urbanizazio nahikorik ez egoteagatik, eta jarduera ekonomikoetarako eraikigarritasuna handitzeagatik.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/11/24

Alderdien artean sinatutako Hirigintza-hitzarmenak antolamendu irizpide orokorrak ezartzen ditu, eta, horien artean, hauek dira nagusiak:

- Oinezkoentzako eta bizikletarientzako lotura on bat lortzea, biziberritze-berdegune bat sortuz eremua inguratzen duen erreka-ondoa, modu irisgarri batean lotuz Urbiletik gertuen dagoen goialdea eremuaren behealdearekin eta Oria ibaiarekin. Oinezkoentzako eta bizikletarientzako lotura nagusitik bereizita lotu beharko da eremuko motordunen zirkulazioa lehendik dauden bide azpiegiturekin.
- Oreka bat lortzea bi alderdi hauen artean: alde batetik, lurzati pribatuen lurzorua, okupazio modua, eta horietarako sarbideak, eta, bestetik, espazio publikorako lurzorua.
- Kalitatezko espazio publikoa sortzea, egoteko espazio gisa, eta lotura-espazio gisa Urbil inguruaren, eta Lasarte-Oriako erdigunearen eta Txikiardiren artean.

Bestalde, aldaketa horrek ingurumen helburu hauei erantzuten die:

- Eremu degradatu bat berronertzea, zehazki eremu antropizatu batzuk –non Michelin enpresak Usurbilen bere industria-jarduera garatu duen– gaur egun erabiltzen ez direnak.
- Inpaktu txikiko urbanizazio bat garatzea, lurzoruaren zigilatzea eta iragazgaiztea ahalik eta gehiena murriztuz.
- Hirigintza-eredu jasangarriak aplikatzea, oinarritzat izango dituztenak eraikuntza bioklimatikoko jarraibideak, energia berriztagarrien erabilera, eta energia-efizientziako irizpideak. Horrela, hurbildu nahi dira hiri-garapen berriak energia-autosufizientziara.
- Eraikinen estalkiak eta lurpea aprobetxatzea ura hartzeko, zenbait erabileratarako erabiltzeari begira.
- Hirigintza-plangintzek eta -proiektuek kontuan hartu beharko dituzte hondakinak kudeatzeko mekanismoak eta azpiegiturak, oinarrituta murriztean, berrerabiltzean eta birziklatzean.
- Eremuaren eta inguruko eremuen arteko ibilgailuentzako edo oinezkoentzako konexioak optimizatzea.

Jarduketa hori jasota dago Donostiako Eremu Funtzionalaren (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Lurralde Plan Partzialean. Proposatutako Arauen aldaketaren azken helburua, hau da, Michelin lantegiko lurzoru zaharkituak eraldatuz hirugarren sektoreko jarduera berrien industrialde bat sustatzea, lehentasunezko jarduketa publikotzat jotzen du LPPk Oria Beheko hiri-elkarketarako, zeina



Usurbilgo Udala

Data: 2022/11/24

osatzen baitute Usurbilek, Lasarte-Oriak eta Donostiako Zubieta eta Errekalde auzoek. Era berean, LPPk oinezkoen eta bizikletarien sarerako proposamen berri bat jasotzen du, A-78 Zapategi eremuaren parean doana, haren eta Oria ibaiaren artean.

Ingurumen dokumentu urbanistikoan eta ingurumen dokumentu estrategikoan, 5 alternatibaren analisia egiten da garapen horretarako, 0 alternatibaz edo esku ez hartzekoaz gain. Lehenengo lau alternatibak aztertu ziren 2019an hasieraz onetsitako dokumentuan, eta, une hartan, laugarrena hautatu zen. Hala ere, orain, antolamenduari buruz egin den birplanteamendurekin, bosgarren bat diseinatu da, azkenean aurrera eramango dena.

0 alternatiban, hau da, indarrean dauden Arau Subsidiarioetan, aurreikusten da Michelin enpresaren instalazioak handitzea, eta planteatzen da Txikiardiko sarbidea hobetzea. Hala eta guztiz ere, arau horiek onartu zirenetik igarotako denboran, enpresa horrek murriztu egin ditu eremu horretako lurzoru premiak; beraz, gaur egun erabilerarik ez duten lurzoruak ez ditu okupatuko etorkizunean. Alde batetik, Michelin España Portugal SAK enpresa-estrategian izandako aldaketa horrek; bestetik, Balfer Norte SLk eta Gureak Lanean SAK lurzoru horiengatik erakutsitako interesak, bai eta lurzoru horiek okupatzeak berekin dakarren aukerak –ekonomiaren ikuspuntutik (udalerrian jarduera ekonomikoa handitzea, eta zuzeneko 700 lanpostu sortzea), gizarte ikuspuntutik (gizarte izaera nabarmeneko jarduera berriak ezartzea, eta espazio degradatu bati balioa ematea) eta ingurumen ikuspuntutik (lurzoru artifizializatuak berrerabiltzea, eta Oria ibaitik hurbil dauden lurzoru libreak herritarrentzako berdegune gisa berreskuratzea)–, eta azkenik, indarrean dagoen plangintza orokorra berrikusteko prozesu naturalari itxaron ezin dion denbora batean proiektuari irtenbide bat eman beharrak, bada, alderdi horiek guztiek justifikatzen dute aldaketa horren komenigarritasuna eta egokitasuna; beraz, berrmatzen dute ezestea 0 alternatiba, indarrean dagoen plangintzari eustekoa.

Bestalde, Arau Subsidiarioen aldaketa honen izaera dela-eta, baztertzeko da kokapen alternatibak hautatzea, analisia zentratuta soilik eremuaren barruko antolamendu alternatiba posibleetan.

Planteatutako 5 antolamendu alternatibei dagokienez, honela laburbil daitezke:

- Lehenengoa, non soilik erantzuten zitzaien Balfer Norte SLk eta Gureak Lanean SAK adierazitako beharrei. Baztertu zen ez zituelako betetzen Hirigintza-hitzarmenean eremu horretarako ezarritako ingurumen helburuak, ez eta HAPOnen



aurrerapeneko ingurumen zehaztapenak ere. Gutxien baloratutako aukera da ingurumenari dagokionez.

– Bigarrena, helburu zuena HAPOn aurrerapenean ezarritako irizpideak betetzea. Bertan ezartzen zen kalitatezko espazio publiko bat diseinatu beharra, oinezkoentzako eta ikusizko ardatz bat sortuz, lotuko zituena Urbil merkataritzagunea eta Oria ibaia, eta haien arteko kota-aldea gaindituko zuena, eta, gainera, ahalbidetuko zuena plaza publiko bat sortzea. Ingurumen alderdi batzuk hobetzen ditu, hala nola espazio publikoaren tratamendua –giza habitataren gaineko eragin positiboa–, birnaturalizatu beharreko espazioen azalera –landarediaren eta faunarentzako habitataren gaineko eragin positiboa–, eta eremuko ur artifizialaren ibilgua birnaturalizatzeko aukera –sare hidrologikoaren gaineko eragin positiboa–. Baztertu zen, zeren eta eraikin pribatuen konfigurazioak barne ekoizpenaren fluxua hainbeste zailtzeak bideraezin bihurtzen baitzuen.

– Hirugarrena, non aldatzen zen berdegunearen egoera; hala, ibaiaren ibilguari jarraituz, berdegune zabal bat sortzen zen eremuaren mendebaldean. Abiapuntuko helburuak betetzen ditu, eta bigarren alternatiban jada aipatutako ingurumen alderdiak hobetzen ditu; are gehiago, handitu egiten du bernaturalizatu beharreko espazioen azalera, haren aldean. Hala ere, bigarren alternatibarako gertatzen den bezala, antolamenduak ez ditu betetzen eremuan azkenean ezarriko diren industria-jardueren programa funtzionalak. Horregatik, ezin da jo alternatiba bideragarritzat.

– Laugarrenak, 2019an hasieraz onetsitakoak, oinezkoentzako/ikusizko ardatz bat garatzen zuen, eremua zeharkatzen zuena konexio plataforma/egitura baten bidez, hasi eremuaren goiko aldetik, eta eremuaren erdialdean kokatutako plaza publikoraino. Oria ibaiaren ertzeko lurrak sartzen zituen, erriberako berdegune bat sortuz, oinezko lotura zuena Urbileko zabalgunearekin. Bigarren eta hirugarren alternatiben eragin positibo berberak zituen, baina antolamendua diseinatu zen erantzun bat emateko eremuan hasiera batean ezartzekoak ziren jarduera ekonomikoaren behar funtzionalei. Horregatik, jarduera horien parte bat aldatu denez, eremua berrantolatu behar da, egungo premietara hobeto egokitzen den planteamendu batekin berrantolatu ere.

Lau alternatiba horiek baztertu ondoren, erabaki zen bosgarren bat prestatzea, eusten diena, neurri handi batean, prozesuan zehar planteatutako helburu publiko nagusiei, baina birplanteatzen duena eremuaren eraikigarritasuna –murriztu egiten baita–, bai eta urbanizatzeko karga ekonomikoak ere; hartara, eremuaren



bideragarritasun ekonomikoa berma dadin. Alternatiba berri horrek berreskuratu egiten du, neurri batean, antolamenduko hirugarren aukera, baina hartan ez bezala, eraikinak errekatik urruntzen dira, eta Jabari Publiko Hidraulikoaren zortasun eremua errespetatzen dute, arroko erakundeen baldintzak betez (Ura/Konfederazioa). Horrela, errekan zehar, eremuko espazio publiko nagusia sortzen da, barne hartzen dituena oinezkoentzako konexioa eta ikusizko ardatza ere, hasi Urbil zabalgunetik eta Oria ibaiaren erriberako berdeguneraino. Alternatiba horrek 3. eta 4. alternatiben eragin positiboak ditu, baina, gainera, kontuan hartzen ditu eremuan ezarriko diren industria-jardueren behar funtzionalak; beraz, egokientzat jotzen da.

3. Kontsulta egitea eragindako administrazioei, pertsona interesdunei, eta jendeari, oro har.

21/2013 Legeko 30. artikuluan xedatutakoari jarraiki, eta oinarritzat hartuta plan bereziaren aldaketaren eta eragindako lurralde eremuaren ezaugarriak, Ingurumen Zuzendaritza Nagusi honek ondorengo administrazioak eta erakundeak identifikatu ditu interesdun gisa, eta kontsulta egin die. Hala, organo sustatzaileak taxututako dokumentazioa igorri zitzaien:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza (GFA).
- GFAko Mendietako eta Natura Inguruneke Zuzendaritza.
- GFAko Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendaritza.
- GFAko Nekazaritzako eta Lurralde Oreke Zuzendaritza.
- GFAko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza.
- GFAko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza.
- GFAko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza.
- GFAko Errepideetako Zuzendaritza Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Energia, Meategien eta Industria Zuzendaritza.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/11/24

- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.
- IHOBE.
- EEE.
- Uraren Euskal Agentzia (URA).
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.
- Añarbeko Uren Mankomunitatea.
- San Marko Mankomunitatea.
- Beterri-Buruntzako udalak.
- Behemendi.
- EHNE.
- ENBA.
- Aranzadi Zientzia Elkarte.
- Eguzki talde ekologista.
- Ekologistak Martxan.
- Haritzalde Naturzaleen Elkarte.
- Itsas Enara Ornitologia Elkarte.

Halaber, dokumentazioa eskuragarri egon da Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren Interneteko www.gipuzkoaingurumena.eus atarian; hartara, jendeak, oro har, eta beste edozein interesdunek egokitzen jotako ingurumen arloko ekarpenak egin zituzten.

Epea amaituta, eta txosten hau igorri zen egunera arte, erantzun hauek jaso dira:

- URA Uraren Euskal Agentziak jakinarazten duenez, bere txostena gorabehera, eskaera Kantauriko Konfederazio Hidrografikora bidali du, txostena egitea komeni dela uste badu ere.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak adierazi duenez, dokumentazioa aztertu ondoren, ez du beharrezkotzat jotzen txostena egitea.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazten duenez, dokumentazioa aztertu ondoren, proiektu horren esparruan ez da eraginik hauteman kultura-ondarean.
- GFAko Kultura Zuzendaritzak jakinarazten duenez, eskura dagoen informazioa kontsultatuta, esku-hartzea egin nahi den lekuan, ez dago ondare arkitektoniko edo arkeologiko gisa babestutako elementurik. Hala ere, adierazten dute ezen, Michelinen egungo eraikina Euskal Kultura Ondarearen Zentroak tokiko babesa eman dakien proposatutako higiezin zerrendan dagoela, eta, aurkeztutako dokumentuan



Usurbilgo Udala

Data: 2022/11/24

proposatzen da eraikin hura finkatzea. Amaitzeko, ez dio eragozpenik jartzen proiektuari.

– Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak dagoeneko jakinarazi zuen eremu horretako lehen aldaketa-proposamenean, 2019an. Positiboki baloratzen du, natura-ondarearen gaineko eraginen ondorioetarako, lur zerrenda zabalago bat lagatzen dela –Berdeguneen eta espazio publikoen tokiko sistema– Oria ibaira isurtzen den errekaen inguruan. Beste alde batetik, ingurumen dokumentuak proposatzen du urbanizazio proiektuak ingurumena lehengoratzeko programa bat izan dezala, barne hartuko dituen espezie autoktonoekin birlanaketak egitea, eta espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzeko programa bat. Zehaztapen hori aldaketaren Hirigintza-dokumentazioan sartu beharko da, Urbanizazio Proiektua garatzeko baldintza gisa. Era berean, programa horien definizioak, haiek proiektuarekin batera egikaritu ahal izateko adinako zehaztasun maila izan beharko du, zeinak barne hartuko baitu horretarako dagokion aurrekontua.

– Añarbeko Urak sozietateak azaltzen duenez, hornidurari eta saneamenduari dagokienez, orain planteatutako antolamendu berriak ez dakar aldaketarik, beharretan eta baldintzetan, 2019an eremu horretarako aurkeztu zen lehenengo aldaketa-proposamenekoen aldean. Beraz, lehendik bidalitako txostena erantsi du berriro. Txosten horretan, eskuragarri zegoen informazioa aztertu ondoren, ondorioztatzen zen aldaketak ez zuela eraginik Añarbeko ur hornidurako edo saneamenduko sistema orokorretan. Nolanahi ere, igorritako dokumentazioaren definizio maila txikia zela-eta, uste zuen urbanizazio proiektua igorri behar zela, baliozkotzeko. Azkenik, ezartzen zuen ezen, eremu berrietarako aurreikustekoa zen saneamenduak sare bereizleak izan beharko lituzkeela, eta ur beltzen isurketek bete beharko luketela «Añarbeko Uren Mankomunitatearen saneamendu eta isurketei buruzko Erregelamenduan» ezarritakoa, eta euri-uren isurketei dagokienez, berriz, Uraren Euskal Agentziak zehaztuko lituzkeen eskakizunak bete beharko lituzkeela.

Erantzunak, ingurumen txosten estrategikoarekin batera, Usurbilgo Udalari bidaliko zaizkio, eta geroago erantzunen bat jasoz gero, hori ere Udalari bidaliko zaio lehenbailehen, kontuan har dezaten aldaketa idaztean eta izapidetzean.

4. Azterketa, oinarritzat hartuta Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen V. eranskinean jasotzen diren irizpideak.



Aldaketaren ezaugarriak dagokienez, hura onartzearekin batera, ahalbidetzen da ezen, lurzoru antropizatu bat, etorkizunik ez duena Michelin enpresaren instalazioak handitzeko erabiltze aldera –Arau Subsidiarioek arlo horretarako ezarritako hasierako helburua–, igaro dadila ekonomia-jardueretarako erabilerarako okupatua eta eraldatua ere izatera, baina eraikitze eta urbanizatzeko irizpide askoz ere zehatzagoekin eta zorrotzagoekin ingurumen alderdien integrazioan, eta herritarrek, oro har, horiek erabiltzeko sustapenean. Gainera, aldaketa horrek ahalbidetuko du Donostialdeko LPPk lehenetsunez jotzen duen jardura bat abian jartzea, eta ez du eraginik izango beste plan edo programa batzuetan. Haren garapena egingo da, 110 Zapategi eremuaren kasuan –78 Michelin eremuan egungo egoerari eustea baino ez da planteatzen–, dagozkion eraikuntza- eta urbanizazio-proiektuen bidez. Industrialderako lurzoru urbanizatzeko proiektu horrek, hektarea bat baino gehiagoko azalera bati eragiten dionez, ingurumen inpaktuaren ebaluazio arrunta behar du, hala baitio, II.D eranskinean, 10/2021 Legeak, abenduaren 9koak, Euskadiko Ingurumen Administrazioarenak. Izapidetze horrek ahalbidetuko du neurri babesle eta zuzentzaileak txertatzea, zeintzuk behar baitira aldaketa horrek izan ditzakeen inpaktuak minimizatzeko.

Eragina jasan lezakeen eremuaren balioari eta kalteberatasunari dagokienez, eremua antropizatuta dago. Horrela, A-78 Zapategi eremuaren ekialdeko erdia (etorkizunean, A-78 Mitxelín eremu berria) Michelineko industria-instalazioek okupatzen dute, eta ez du berezko landaredi baskularrik; aldiz, mendebaldeko erdian (etorkizunean, A-110 Zapategi eremu berria) lursail gehienak okupatzen dituzte bai landaredi erruderalak, zeina egokituta baitago gizakiak eta espazio interstizialek eraldatutako lurzoruak kolonizatzerako, bai espezie inbaditzaile exotikoek (Cortaderia selloana, Phyllostachys sp. eta Buddlejia davidii). Badaude interes txikiko zuhaitz apaingarri batzuk ere, hala nola Cedrus deodara eta Populus gr. deltoides.

A-110 Zapategi eremu berriak, ipar-mendebaldean, muga egiten du erreka desbideratu batekin, zeina guztiz bideratuta baitago eta kutsadura organikoaren zantzuak baititu. Erriberetan baditu landatutako zuhaixka eta landare igokari apaingarri batzuk, landare espontaneo batzuekin batera, hala nola Carex pendula, Rubus sp, Salix atrocinera eta urteko espezie erruderalak.

Bestalde, Oria ibaiak eremu horretatik gertu duen tartea, «Oria ibaia V» lurrazaleko ur masa da, zeinaren egoera ekologikoa «eskasa» baita eta ez baitu betetzen bere ingurumen helburua epe barruan. Egoera ezegonkorra du, non txandakatzen dituen potentzial ekologiko oneko bere helburuaren ez-betetze arina eta larria. Erriberetan,



Usurbilgo Udala

Data: 2022/11/24

baratzeak eta labore txikiak ditu, zeintzuetan landaretza espontaneoak espezie arrotzetara mugatzen baita, eta ibilgutik gertuen dagoen zerrenda zuhaixka-itxurako landarediak hartuta dago, nagusi direla sahatsak (*Salix atrocinerea*, *Salix alba*) eta haltz gazteak (*Alnus glutinosa*), baita banbu populazio batzuk ere. Oihanpea oso pobrea da, eta sasiak ditu nagusi. Oro har, plangintzaren aldaketak eragindako eremuan dagoen landarediaren interesa oso txikia da. Ez dago intereseko espezierik babes edo mehatxu estatusa duelako, eta ugari dira espezie exotiko inbaditzaileak. Eremua ez dator bat Batasunaren intereseko habitat motekin.

Proiektuaren eremuan dauden fauna-espezieak hiri eremuei lotutako fauna-komunitatearen parte dira.

Paisaiari dagokionez, Usurbilgo udalerriko Oria ibaiaren Paisaiaren Ekintza Planak (PEP) «hiri paisaia» paisaia-unitatean sartzen du aztergai den eremua. PEPek Usurbil eta Lasarte arteko hiri- eta industria-paisaia deskribatzen du nabarmenki antropizatutako paisaia gisa, ageriko gatazkak daudela. PEPean okerren baloratutako paisaia-unitatea da, bai irizpide objektiboengatik, bai balorazio sozialarengatik.

Laburbilduz, esan daiteke aldaketak eragindako eremuak ez duela ezaugarri natural garrantzitsurik, eta ez datorrela bat Natura 2000 Sareko edo EAEko Espazio Babestuen Sareko guneekin. Halaber, ez da ikusi, ez eta aipatu ere, inguru horretan, katalogatutako edo mehatxatutako animalia espezierik dagoenik Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan sartutakorik, ezta onetsitako Kudeaketa-plana duen animalia-espezierik ere. Azkenik, ez dago ondare elementu katalogaturik edo katalogatzeko proposaturik, eta ez dator bat interes geologikoko leku, ibilbide edo puntu bakar batekin ere.

Ingurumen kalitateko muga-balioak edo helburuak gainditzeari dagokionez, ingurumen azterketa estrategikoak barne hartzen du azterketa akustiko bat, non analizatzen den zer-nolako eragina izango duten soinu iturri hauek: N-634 errepidea (Lasarte-Txikiardi zatia), GI-3831 errepidea (Txikiardi auzoaren eta Geltoki kalearen arteko zatia), N-634 errepidera iristeko hiri bideak eta egungo merkataritza-gunerako sarbideak, Euskotrenen trenbide sarea, eta, azkenik, jarduketa-eremuaren barruko etorkizuneko jarduerak eta etorkizuneko lurzatiatarako sarbideak. Bereizten diren hartzaile esanguratsuak hauek izango dira: Txikiardi auzoko bizitegi-etxebizitzak eta lehendik dagoen industria- eta merkataritza-eremua.

Analisi akustikoaren emaitza da ez daitezela gainditu kalitate akustikoko helburuak egungo nahiz etorkizuneko egoeran, ez erabilera



Usurbilgo Udala

Data: 2022/11/24

nagusia industriakoa eta tertziarioa duten eremu akustikoetan, ez bizitegi-erabilera dutenetan.

Ingurumen azterketa estrategikoak, halaber, barne hartzen du azterketa hidrauliko bat eremuan dauden uholde arriskuak saihesteko, zeren eta, EAEko uholde arriskuko mapen arabera, baliteke azterketa-eremua, egungo egoeran, 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholdeek partez eraginda gertatzea, baina kontuan hartu behar da eremuaren Hirigintza-eraldaketak aurreikusten duela urbanizazio plataforma igotzea egungo egoeraren aldean. Azterlan horren arabera, Zapategi eremuko urbanizazio plataforma 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuko eremutik kanpo dago, eta ez du gainigoerarik edo abiadura-gehitzerik eragiten lurzatiari erantsitako eremuetan. Azkenik, proiektatutako sarbideak eta bidegorria lehenasunezko fluxu-eremutik kanpo daude.

Aldaketaren eremuko beste arrisku bat lotuta dago lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan sartzearekin. Horri dagokionez, eman da Ebazpena, 2017ko ekainaren 6koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez deklaritzen baita lurzoruaren kalitatea 3. ZONA izenekoan, lurzati horretan garatu baitzuen bere jarduera Michelin España Portugal S.A., Usurbilgo udal mugartean (Gipuzkoa), bat etorrita 1/2005 Legeak, otsailaren 4koak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoak, araututako prozedurarekin. Ebazpen horrek lurzoru hori industria-erabilerarako eraldatutzat jotzen du, 1/2005 Legeak, otsailaren 4koak, adierazitako baldintzetan, eta xedatzen du MZ3-P-9 piezometro baten jarraipena egin beharko dela. Jarraipen hori 2017an eta 2018an egin da, eta lortutako emaitzak beti egon dira indarreko araudiaren esku-hartze mailaren azpitik.

Ondorioei dagokienez, aldaketak inpaktu negatibo «ez-esanguratsuak» edo «ez oso esanguratsuak» sortuko ditu goian azaldutako ingurumen aldagaietan, dimentsio txikikoak, eta egin beharreko obren lizentzien edo baimenen bidez kontrolatu ahal izango direnak. Azpimarratzekoa da positiboak ere izango direla, eta horietako batzuk ez zirela gertatuko Arau Subsidiarioen hasierako antolamenduari eutsi balitzaio, hots, gauzatu zirenean urbanizazio bat eta industria-eraikuntza bat, kontuan hartu gabe aldaketa honen Hirigintza-araudian ezartzen diren irisgarritasun, hiri integrazio eta jasangarritasun irizpideak. Hala, aipa daitezke paisaia-kalitatearen eta giza habitataren hobekuntza, eta inpaktu sozioekonomikoa (gutxi gorabehera 700 lanpostu berri sortzea).

Hortaz, aurreko gogoetak kontuan hartuta, ondorioztatzen da ezen Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren aldaketa honek planteatzen



Usurbilgo Udala

Data: 2022/11/24

duen antolamenduak ez duela ingurumen ondorio esanguratsurik izango, ez bertan planteatutako jarduketan ezaugarriengatik, ez eragindako ingurunearen sentzibilitateagatik. Era berean, kontsideratzen da ezen, Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren aldaketa puntualak antolatutako eremua tamaina txikikoa denez, eta urbanizazio proiektuari ingurumen inpaktuaren ebaluazio arrunta egin behar zaionez, ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta egiteak ez luke hobekuntza esanguratsurik ekarriko ingurumen inpaktuen identifikazioan eta balorazioan, ez eta hura zuzentzeko neurri zuzentzaileen definizioan ere.

Horren ondorioz, aurreko guztiarekin bat etorritik, eta hala ezartzen baitu, 31. artikuluan, 21/2013 Legeak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, eta aurreikusten baitu 22/2016 Foru Dekretuak, uztailearen 19koak, ingurumen txosten estrategiko hau egin du Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak, alderdi hauek kontuan hartuz:

Lehenengo. Ez jartzea Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren hirugarren aldaketa puntuala, A-78 Zapategi eremuari dagokionez, ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren mende, zeren eta, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, V. eranskinean ezarritako irizpideekin bat etorritik egindako analisiaren arabera, eta egindako kontsulten emaitza kontuan hartuz, ondorioztatzen baita ez duela eragin negatibo nabarmenik izango ingurumenean.

Bigarren. 21/2013 Legeko 31.4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, ingurumen txosten estrategiko honek indarraldia galduko du, eta berezkoak zaizkion ondorioak izateari utziko dio, baldin eta, behin Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, Plana onetsi ez bada hura argitaratu eta lau urteko epean beranduenez.

Hirugarren. Agintzea ingurumen txosten estrategiko hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta zuzendaritza honen web orrian argitara dadila.

Donostia, 2022ko martxoaren 2a.—Mónica Pedreira Lanchas, Ingurumeneko zuzendari nagusia.

ALDAKETA PUNTUALERAKO DOKUMENTUA

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (TE) ZAPATEGI eremuaren aldaketa puntualaren (03. aldaketa) dokumentua udal arkitektoak, Nora Erdozia Ibañez andereak, eta udal aholkulari juridikoak, ARAUDI S.L.P. taldeko Nekane Azarola Martinez andereak datzi dute.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/11/24

HASIERAKO ONESPENA ETA JENDAURREAN JARTZEA

Hala, 2022ko martxoaren 31ean, Plenoak, udal teknikarien aldeko txostenak kontutan izanik, aho batez, zera erabaki zuen hitzez hitz:

LEHENENGO: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (TE) ZAPATEGI eremuaren Aldaketa Puntuala (03. aldaketa) hasieraz onartzea.

BIGARRENA: Onartutako dokumentazioa jendaurrean jartzea hilabeteko epealdian, iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan iragarkia argitaratuz, interesatuek hala baderitzote dagokien alegazioak aurkeztu ditzaten.

HIRUGARRENA: Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere emango zaie hasierako onespeneraren berri. Kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuari eta Mugikortasuneko Departamentuari eta URA-Uraren Euskal Agentziari, Lasarte-Oriako Udalari eta Donostiako Udalari jakinaraziko zaie.

LAUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen 03 aldaketa honek egistasmoren batean eragingo balu eraikitzeke eta lur zatiketarako baimen emakidak etetea, beti ere hartutako erabaki berriak indarrean dagoen Erregimen Urbanistikoa aldatzen badu.

Haserako onспенari loturiko etendura gehienez bi urtebeteko epean indarrean egongo da, aipatutako planaren behin betiko onspena lortzen denean indarrak gabe geratuko delarik.

BOSGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen 03 aldaketa behin behingo onartu aurretik, ingurumen-txosten estrategikoko zehaztapenak eta, URA ur agentziak eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak emandako txostenetan jasotako ondorioak aintzat hartu eta behin behingo onspenerako dokumentuan xertatu beharko dira.

Hartutako erabakiaren arabera, espedientea jendaurrean jarri zen hilabetez, ondoko iragarkiak argitaratuz:

- Berria: 2022-04-06
- Gara: 2022-04-06
- El Diario Vasco: 2022-04-06
- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (68. zenbakia): 2022-04-08

Jendaurreko epealdiaren amaiera: 2022-05-09



Usurbilgo Udala

Data: 2022/11/24

ALEGAZIOAK

Jendaurreko epealdian, ez zen alegaziorik aurkeztu.

ZUZENKETA IDATZIAK

Jendaurreko epealdian, honako zuzenketa eta dokumentazio gehigarria aurkezteko bi idatzi jaso ziren:

1.- idatzia

Sarrera data: 2022/04/19

Sarrera zenbakiak: 2022-00000001684 eta 2022-00000001685

Interesatua: JORGE LIZARRIBAR SANS (Lizarribar Ingenieritza, Zapategi eremuko azterketa hidraulikoa egin duen ingenieritza)

Bi erregistro egiten ditu: Lehenengoan “*Se adjuntan planos de saneamiento fecales y pluviales y Estudio Hidráulico corregido*” azalpenarekin 291 orriko dokumentazioa aurkezten du, Zapategi eremuko Azterketa Hidraulikoa eta euri uren eta ur zikinen planoekin. Bigarren erregistroan dokumentazio berdina aurkezten du idatzi hau gehituz hitzez hitz:

**AL ILMO ALCALDESA PRESIDENTA DE LA CORPORACION MUNICIPAL
DE USURBIL**

Jorge Lizarribar Sans, mayor de edad, domiciliado en Oria Etorbidea, 8 Brunet Eraikuntza 508 Bulegoa 20160 LASARTE-ORIA, provisto de DNI nº 15988118J.

MANIFIESTA

Que ha participado en la redacción de ciertos documentos técnicos de la 3ª Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento para el Área A78 (TE) ZAPATEGI de USURBIL.

Que en cumplimiento del trámite de consultas contemplado en el artículo 30 de la ley 21/2013 de 9 de diciembre de evaluación ambiental la Dirección General de Medio Ambiente de la Excm. Diputación Foral de Gipuzkoa consultó el proyecto con las Administraciones públicas afectadas.

Que en dicho trámite recibió la respuesta de la Agencia Vasca del Agua (URA, Ur Agentzia) y la Confederación Hidrográfica del Cantábrico Oriental.

Que en síntesis ambos órganos de cuenca concluyen lo siguiente:



Usurbilgo Udala

Data: 2022/11/24

URA, Ur Agentzia:

- La documentación cartográfica deberá dibujar la nueva pasarela proyectada y eliminar la que se prevé derribar
- La documentación cartográfica deberá recoger el trazado de la red de abastecimiento y saneamiento futura del área a 110 zapatería.

Confederación Hidrográfica del Cantábrico Oriental

- Que el vertido de aguas pluviales deberá estar sometido a la autorización del organismo pertinente.
- Que la 3º Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento para el Área A78 (TE) ZAPATEGI de USURBIL deberá incluir, tal y como se señala, en el cuerpo del Estudio Hidráulico la eliminación de la pasarela sobre la regata Urbil.
- Para las zonas del ámbito afectadas por la inundabilidad se deberá dar cumplimiento a las limitaciones de los usos establecidos en los artículos 40 y 41 normativa Plan Hidrológico
- Se deberá respetar la zona de servidumbre de 5 m de anchura según lo dispuesto en el artículo 7 del reglamento del Dominio Público Hidráulico
- En relación con lo anterior las actuaciones no deberán suponer una disminución de la vegetación de Ribera de acuerdo con lo establecido en los artículos 90 y 92 bis Texto Refundido de la Ley de Aguas. En todo caso recordándose que para la ejecución de cualquier obra o trabajo en la zona de policía de cauces y en sobre el dominio público hidráulico se precisará autorización administrativa previa del organismo de Cuenca

Que teniéndose todo ello en consideración, se presenta este escrito de ALEGACIONES.

PRIMERO

Que tal y como se describe en el cuerpo del Estudio Hidráulico se ha previsto la eliminación de la pasarela sobre la regata URBIL. No obstante, y para mayor claridad, se presenta una versión del mismo Estudio Hidráulico donde se corrigen los errores cartográficos en los que aparece dicha pasarela.

SEGUNDO

Se presenta a su vez documentación cartográfica relativa a la Red de Abastecimiento.

TERCERO

Se solicita la inclusión en el Texto de la 3MPNNS para el A78 ZAPATEGI de la obligación de solicitud de autorización de vertido para las aguas pluviales, así como el resto de los requerimientos mencionados en los Informes de los Organismos de Cuenca (URA, Ur Agentzia y Confederación Hidrográfica del Cantábrico Oriental Y para que surta los efectos pertinentes se presenta este escrito con sus anexos en la fase de alegaciones públicas iniciado tras el acuerdo de aprobación inicial del Texto de la 3º Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento para el Área A78 (TE) ZAPATEGI de USURBIL.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/11/24

2.- idatzia

Sarrera data: 2022/04/19

Sarrera zenbakiak: 2022-00000002374

Interesatua: JOSE IGNACIO GALARRAGA URRETAVIZCAYA (eremuko jabeen ordezkaria)

Aurkeztutako idatzian honakoa dio hitzez hitz:

Idazki honen bidez jakinarazten da akats bat antzeman dela B HIRIGINTZA ARAUDIA dokumentuan:
A110 (TE) ZAPATEGI; 6. OKUPAZIOA eremuaren Hirigintza-fitxa (11. orrialdea)
P.1. Partzela: 10.500 m2 okerra da; 10.050 m2 esan behar du.
Dagozkion legezko ondorioak izan ditzan.

BIDE AZPIEGITURETAKO DEPARTAMENTUAREN TXOSTENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide azpiegituretako plangintza eta ustiaketa unitateko buruak Jesus Angel Maguregui Arregui jaunak, eta Plangintza eta Ustiaketako Zuzendari Nagusiak, Mikel Uribetxebarria Barrena jaunak, 2022ko maiatzaren 9an eman dute beraien txostena. Hitzez hitz honela dio:

USURBILGO A-78 (TE) ZAPATEGI EREMUARI DAGOKION HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN TESTU BATEGINAREN 3. ALDAKETA PUNTUALARI BURUZKO TXOSTENA

Usurbilgo Udalak hiri antolamenduko arau subsidiarioen testu bateginaren 3. aldaketa puntuala: A-78 (TE) Zapategi bidali du, Bide Azpiegituretako Departamentuak irizpena eman dezan, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratuak, 2006ko ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arauemaileaz onartutakoak, 94. artikuluan agintzen duena betez.

Gaur egungo A-78 (TE) Zapategi eremua Usurbilgo udalerraren ekialdean dago, MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL S.A. enpresa kokatzen den lekuan. Hegoaldera mugakide da Lasarte-Oria udalerrarekin. Iparraldera Urbil merkatalguneko bideak mugatzen du. Eremuak GI-3831 errepidetik Lasarte-Oriara doan bidetik du sarbide zuzena.

Dokumentu honen helburua da A-78 eremurako finkatutako zehaztapenak berrantolatzea bi eremuetan banatuz. Alde batetik, A-78 (TE) MICHELIN eremua, hiri-lur kontsolidatua, egungo eremuaren murrizketaren ondoriozkoa dena, bertan dauden eraikinak eta MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL S.A. jarduera kontsolidatuz. Bestetik, A-110 (TE) ZAPATEGI eremu berria, hiri-lur ez-kontsolidatua, egungo eremutik banatzen diren egoera degradatuan



Usurbilgo Udala

Data: 2022/11/24

dauden lurak eta GI-3831tik sarbide berria gauzatzeko behar direnak osatzen dutena.

2019ko apirilean, departamentu honek antzeko dokumentu baten aldeko txostena egin zuen. Kasu hartan, A-110 (TE) ZAPATEGI eremu berrian jarduera ekonomiko, sozial eta kulturalen enpresak ezartzea aurreikusten zen: ELKAR FUNDAZIOA eta GUREAK LANEAN SA Hala ere, Covid-19 pandemiak ekonomiaren sektore askotan izan duen eragina zelaeta, Elkar Fundazioak proiektuarekin ez jarraitzeko borondatea agertu zuen. Bestalde, Gureak Lanean SAK bere jardueren zati bat eremuan kokatzeko interesa mantendu zuen, baina bere gizarte-premiak birplanteatu zituen, planteatutako antolamenduan eta eraikigarritasunean ere islatuz.

Testuinguru horretan, eremuaren antolamendua birplanteatu da. Industria-erabilerarako degradatutako eremu bat berroneratzeko helburu nagusiari eusten zaio, eremuaren hirigintza-eraikigarritasuna eta urbanizazio-kargak nabarmen murriztuko dituen antolamendu berri batekin, garapen berriaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko. A-110 (TE) ZAPATEGI hirigintza-eremua industria-jarduera ekonomikoetara bideratutako eremu berria izango da.

Ibilgailuen sarbidea GI-3831tik egingo da, bertan aurreikusi den biribilgune berriaren bidez. 38 metro diametro izango du. Mendebaldean dagoen ubidea birroneratu eta berreskuratu da, haren inguruan gune berdeak eta oinezko ibilbidea sortuz.

Agiria aztertu ondoren, Departamentuaren eskumeneko gaiei dagokienez, ez dugu eragozpenik ikusten onespena emateko.

Data / Fecha: 2022/05/09 10:03:10

Sinatzailea 1 / Firmante 1: JESUS ANGEL MAGUREGUI ARREGUI - 15362676X

Jefe de la unidad de planificación y explotación de infraestructuras viarias / Bide azpiegituretako plangintza eta ustiaketa unitateko burua

Data / Fecha: 2022/05/09 10:36:53

Sinatzailea 2 / Firmante 2: MIKEL URIBECHEVARRIA BARRENA - 72573568N

Plangintza eta Ustiaketako Zuzendari Nagusia / Director General de Planificación y Explotación

URA UR AGENTZIAREN ETA KANTARURIKO KONFEDERAZIO HIDROGRAFIKOA TXOSTENAK

URA ur agentziaren Plangintza eta Lanen Zuzendariak, Jose María Sanz de Galdeano Equiza jaunak, 2022ko urriaren 3an, URA ur agentziak eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak emandako txostenak bidali dizkigu



Usurbilgo Udala

Data: 2022/11/24

URA ur agentziak 2022ko irailaren 29an emandako txostenak honako ondorioak biltzen ditu hitzez hitz:

INFORME DE LA DIRECCIÓN DE PLANIFICACIÓN Y OBRAS DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA-URA RELATIVO A LA APROBACIÓN INICIAL DE LA 3ª MODIFICACIÓN PUNTUAL DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS REFERIDA AL ÁREA A-78 (TE) ZAPATEGI DE USURBIL

N/ Ref.: IAU-2022-0136
S/ Ref.: HZ.0172018-0496

1. INTRODUCCIÓN Y ANTECEDENTES

Con fecha de entrada del 8 de abril de 2022, el Ayuntamiento de Usurbil, de conformidad con lo establecido en el artículo 90.5 de la Ley 2/2006, de 23 de junio, de Suelo y Urbanismo, remite un oficio con objeto de que por parte de esta Agencia se emita el correspondiente informe en las materias de su competencia.

La documentación de la modificación puntual incluye información de la aprobación inicial (memoria informativa y justificativa, normas urbanísticas, resumen ejecutivo...), los planos de información y ordenación, el Estudio Hidráulico, el Estudio Acústico, otros anexos, así como el Documento Ambiental Estratégico (DAE).

Cabe destacar que en relación con esta modificación puntual esta Agencia ha emitido varios informes:

- En el tramite ambiental el 24 de julio de 2019 (nº ref.: IAU-2019-0089).
- En el tramite urbanístico de la aprobación inicial el 16 de diciembre de 2019 (nº ref.: IAU-2019-0112).
- En el Pleno de la COTPV (aprobación provisional) el 17 de febrero de 2020 se emitió informe desfavorable (nº ref.: IAU-2019-0338); y posteriormente, tras presentar documentación complementaria subsanando los aspectos requeridos en relación con la protección del Dominio Público Hidráulico y el riesgo de inundabilidad, se emitió informe complementario en sentido favorable el 2 de septiembre de 2020.

Asimismo, al igual que esta Agencia, la Confederación Hidrográfica del Cantábrico ha informado en varias ocasiones (nº ref: ICA/20/2019/0017). La primera de ellas, en la aprobación inicial el 8 de enero de 2020; la segunda, a su paso por el Pleno de la COTPV el 9 de marzo de 2020, y la tercera, en respuesta a la documentación complementaria presentada, el 7 de agosto de 2020 (informe complementario favorable).

En la documentación remitida se indica que, la fundación Elkarlanean, Gureak Lanean, S.A., Michelin España y Portugal S.A., junto con el Ayuntamiento de Usurbil firmaron el 17 de octubre de 2018 un Convenio Urbanístico por el que se comprometían impulsar una modificación puntual de las NNSS para el área A-78 (TE) Zapategi.



Usurbilgo Udala

Data: 2022/11/24

En cumplimiento de aquel convenio se promovió la 3ª la modificación puntual, que fue aprobado provisionalmente el 31 de octubre de 2019 e informado en el Pleno de la COTPV el 19 de febrero de 2020.

Dicha modificación no fue remitida a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su aprobación definitiva debido a que durante la parte final de la tramitación Elkar Fundazioa tomo la decisión de no continuar con el proyecto.

En este contexto, el Ayuntamiento de Usurbil con la finalidad de adecuarse a las nuevas necesidades reales propone una nueva ordenación del área, respetando la mayor parte de los aspectos ya definidos, tales como, la delimitación de las nuevas áreas, las condiciones de ordenación objeto de informes sectoriales y la reducción de la edificabilidad urbanística. Este hecho conlleva a reformular la 3ª modificación de las NNSS de planeamiento del área A-78 (TE) Zapategi y otorgarle una nueva aprobación inicial.

Finalmente, cabe destacar que en el tramite ambiental de la reformulación de la 3ª modificación puntual esta Agencia emitió informe el 1 de marzo de 2022 (nº ref.: IAU-2021- 0416) y la Confederación Hidrográfica del Cantábrico el 3 de febrero de 2022 (nº ref.: ICA/20/2021/0063).

2. ÁMBITO Y OBJETO

El ámbito se sitúa en la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental, tratándose de una cuenca intercomunitaria de la Unidad Hidrológica Oria. Concretamente, en la margen derecha del río Oria. Asimismo, por la zona noroeste del ámbito discurre la regata Urbil, cauce que se encuentra actualmente desviado y encauzado.

El objetivo de la modificación es dividir el actual ámbito A-78 (TE) Zapategi y reorganizar los condicionantes establecidos:

A-78 (TE) Michelin: se consolida con las edificaciones y actividades existentes. Tiene una superficie de 70.096,39 m².

A-110 (TE) Zapategi: formado por los terrenos del antiguo ámbito (liberados de edificación) no incluidos en el A-78 Michelin, la carretera GI-3138 y por los suelos reclasificados en la margen derecha del río Oria. En este nuevo ámbito de suelo urbano no consolidado se proponen actividades económicas desarrolladas por Grupo Balfer y Gureak Lanean S.A., y tiene una superficie de 50.164,34 m².

2.1 Alternativa de ordenación seleccionada

